

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2894

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioetarako laguntzak ematen baitira larrialdietarako laguntzetarako eta ekintza humanitarioetarako finantzaketa-lerro iraunkorretik, 2018rako garapenerako lankidetzaren kargura.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautu zituen garapenerako lankidetzaren kargupeko ekintza humanitarioetarako laguntzak, eta bi jarduketa mota nagusi bereizi zituen. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira, urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabalagoan; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2018ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez (apirilaren 11ko EHAA, 69. zk.), 2018rako garapenerako lankidetzaren kargura, ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egin zen.

Deialdiaren ebazpenaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2018ko maiatzaren 22ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2018ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren erakundeei diru-laguntzen eskaerak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honetan ez da bukatzen administrazio-bidea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtoa jartzen denetik hiru hilabete igaro eta ez bada ezer ebatzi, errekurtoa ezetsizat hartu ahal izango da, eta irekita geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 23a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2018ko ekainaren 1a, ostirala

I. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Diru-laguntza
PRE-2018EH/0001	Bakerako Lankidetz Batzarra	Acción humanitaria para la protección de los derechos y la dignidad de la población palestina bajo ocupación conforme al DIH y el DIDH, con especial énfasis en la lucha contra la violencia de género y la protección de infancia	Palestinar Lurralde Okupatuak	76	184.546,60 €
PRE-2018EH/0002	Oxfam Intermon Fundazioa	Poblaciones indígenas del Municipio de Prinzapolka incrementan sus capacidades de resiliencia y protección de sus medios de vida	Nikaragua	63	160.000,00 €
PRE-2018EH/0003	Unicef Fundazioa	Proteger y proporcionar un entorno familiar para niñas y niños no acompañados o separados de sus familias en el Noreste de Nigeria	Nigeria	67	199.947,43 €
PRE-2018EH/0004	Felix Iñurategi- Baltistan Fundazioa	Organización igualitaria de la comunidad para afrontar y reducir los riesgos ante desastres naturales en el valle de Hushé	Pakistan	65	151.653,54 €
PRE-2018EH/0005	Comité Español de la Unrwa elkarte	Reduciendo la inseguridad alimentaria de las personas refugiadas de Palestina en la Franja de Gaza que viven en situación de pobreza absoluta	Palestinar Lurralde Okupatuak	67	199.903,57 €
PRE-2018EH/0007	Fundación Ayuda en Acción - Ekintzaz Lagundu Fundazioa	Recuperación de la población afectada por el terremoto del 19 de septiembre en 15 comunidades de la región Mixteca Poblana, México	Mexiko	53	196.699,09 €
PRE-2018EH/0008	Unicef Fundazioa	Combatir la desnutrición en zonas olvidadas de República Centroafricana	Afrika Erdiko Errepublikak	58	200.000,00 €
PRE-2018EH/0009	Oxfam Intermon Fundazioa	Liderazgo Transformador de las mujeres de los Bañados de Asunción en situación de emergencias	Paraguay	58	189.251,45 €
PRE-2018EH/0010	Mundubat fundazioa	Apoyo psicosocial a mujeres y menores gaztaties de la Franja de Gaza-Palestina	Palestinar Lurralde Okupatuak	72	184.252,54 €
PRE-2018LL/0001	Comité Español de la UNRWA elkarte	Asegurar la supervivencia de la población refugiada de Palestina en Siria mediante ayuda en efectivo	Siria	65	199.981,00 €
PRE-2018LL/0002	Comité Español de la Unrwa elkarte	Contribuir a preservar la resiliencia de la población Palestina Refugiada en Siria en Líbano gracias a asistencia en efectivo para necesidades básicas	Libano	67	199.980,00 €
PRE-2018EH/0011	Alboan Fundazioa	Atención humanitaria integral a personas en situación de migración forzada en Colombia y Ecuador	Kolombia eta Ekuador	75	199.949,13 €

2018ko ekainaren 1a, ostirala

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Baztertzeko arrazoia
PRE-2018EH/0006	Unicef Fundazioa	Reducción de la incidencia del cólera en Haití	Haiti	Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 15. artikuluan jasotako betekizuna ez betetzeagatik; betekizun horren arabera, gutxienez 50 puntu lortu behar dira.